SECCION AMENA.

GIZON KANPO EDERRA ECHEAN GERRA

(EDAEREA)

—¿Zergaitik bada Chomin diñoe nigaiti
Nazala gizon on bat kafietan beti?
—¿Zergaitik ori daben orrelan esango?
Ejenplo bat jarriko laster deutsut Paulo,
Bisitatik dator da, doa bisitara,
Andra aberats asko bizi oi da ala;
Kanpoan zelan utsik direan ikusten,
Alako asko oi da on ontzak eukiten;
Baña itauntzen bada neskachen artean,
¿Iya echekoandrea ona dan echean?
Ez dabe danak Paulo baietz eranzungo,
Dongak dirala batzui deutsezu entzungo.
Echean ikusiten dalako barrua,
Ikustean bakochai bere jeniua,
Ondo ezaututeko zein dan zelakua,
Testigutzat nai leuke jarri laratsua.
Azala euki arren ederra sagarrak,
Iñoz euki oi dabez biotzean arrak;

Badakit Paulo, zu zer zarean kalean,
Konbidau nozulako sarritan kafean.
Jokuan dozunean samur irabazten,
Dirua bere bardin deustazu emoten;
Baña zu zelakoa zarean echean
Andreak esan eustan lengo jai batean:
Dirurik iñoz ez da astean zurra bi
Dakiala emoten Paulok andreari.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

* * *

ELUR ZURIYA.

¡Ikusi zazu! ¡arritu zaite!
nola *jeisten dan goitikan,*
aur bat jachiko balitz bezela
bigarren bizitzatikan;
¿Etzeradela apur bat ere
arritzen orren gatikan?
¿zér nai zenduben, elur zuriya
goititutzia betikan?

Anka puntetan zerubetatik
orla *jeisten da* elurra,
beti utzirik igeltseruak
baño zuriyago lurra;
gero dantzatzen dira artzayak
ardiyak eta zakurra...
¿ezetz diyozu? ¡Fede gabia!
banuben orren bildurra.

¿Eta diyozu choriyen kantik
zuk ezdezula aditu?